



## HAURRENTZAKO ARNAS POLIGRAFIA ETXEAN.

---

### ZER DA ARNAS POLIGRAFIA?

**Arnas poligrafia** loa aztertzeke proba bat da, eta, batez ere, loaldiko arnasketa aztertzen du. Zenbait parametro neurtuko dira, hala nola sudurreke eta/edo ahoko aire-fluxua, zurrunga, odoleko oxigeno-maila eta toraxaren eta abdomenaren mugimenduak.

**Probaren helburua** da zure haurrak loaldian arnas asalduren bat duen aztertzea, halakorik badu larritasun-maila zenbatestea eta, hala badagokio, tratamendua jartzea.

**Galdera-sorta bat emango zaizu.** Han, zure haurrak proba egiten den gauean duen loari buruzko zenbait galderari erantzun behar diozu, hala nola zer ordutan oheratu den, zenbat denbora behar izan duen lo hartzeke, etab. Informazio hori oso garrantzitsua da proba behar bezala interpretatu ahal izateke.

### NOLA PRESTATU BEHAR DA PROBA EGITEKO?

Aurrez jarriko gara zurekin harremanetan, loaren azterketa egiteke egun bat jartzeke. Probaren egunean, zure haurrak ohiko bizimodua egin behar du. Teknikaria zure etxera joan aurretik afaldu behar du. Proba egin aurretik edari bizigarriek (kafea, tea, freskagarri koladunak...) ez hartzea gomendatzen da.

Botikaren bat hartzen badu, beti bezala hartu behar du.

### NON ETA NOLA EGINGO DA PROBA?

Proba zuen etxean egingo zaio haurrari, eta bere ohean egingo du lo.

Loaren teknikari batek ekipo bat jarriko dio, eta, harekin, zenbait kable izango ditu aurpegian, toraxean, abdomenean eta gorputz-adarretan. Kable horiek tresna bati konektatuta daude, zeinak arnasketa eta bihotz-taupadak erregistratuko baititu eta medikuei aukera emango baitie gaixotasuna diagnostikatzeko eta tratatzeko.

Higiene-arrazoiak direla eta, eta azterketa errazteke, aparatua kotoizko kamiseta baten gainean jarriko da; haren gainean jarriko da ekipoa, eta harekin egin beharko du lo haurrak.

**Erregistroaren kalitatea bermatzeko, gurasoen laguntza behar dugu: oso garrantzitsua da azterketa egiten den gauean umearen logelan egotea eta begiratzea ea umeak mantentzen dituen kableak, zuen etxera joan den teknikariak jarri dizkion bezala, sudurreke eta eskuko sentsoreak batez ere.**

Haurra goizean altxatzen denean, zeuk kendu ahal izango dizkiozu kableak haurrari, adieraziko dizuten bezala, eta, gero, maletatxo batean sartu beharko dituzu. Loaren teknikariak goizeke 10:00ak aldera jasoko du maletatxoa adostu duzuen lekuan.

Probak ez du inongo arriskurik, ez du minik eragiten, eta oso deserosotasun txikia eragiten du.

Proba amaitzen denean, zure haurrak ohiko bizimodua egin ahal izango du.

### NON JASO BEHAR DITUT PROBAREN EMAITZAK?

Azterketa egin ostean, **gutun bat jasoko duzu, eta han adieraziko zaizu** probaren **emaitzak jasotzeke hitzordua.** Kontsulta horretan, mediku batek probaren emaitzak azalduko dizkizu, bai eta haurrak zer tratamendu egin behar duen ere, tratamendurik egin behar badu.